



Eskola Kirola – 2017-2018ko lehiaketako araudia

LEHIAKETA ARAUDIA KROSA / LANDAN ZEHARKAKO LASTERKETA

1. GEHIENEZ IBILI BEHARREKO DISTANTZIAK

Ibili beharreko distantziak ezingo dira izan ondoren adieraziko direnak baino handiagoak, ez eta aurreko hilekoak baino txikiagoak ere:

KATEGORIA	URR.	AZA.	ABE.	URT.	OTS.	MAR.
NESKA HAURRAK	1.000	1.200	1.500	1.800	2.200	2.200
MUTIL HAURRAK	2.000	2.500	2.800	3.200	3.600	4.000
NESKA KIMUAK	800	800	1.200	1.400	1.700	1.700
MUTIL KIMUAK	1.200	1.500	1.500	2.000	2.500	3.000
MUTIL BENJAMINAK	600	600	1.000	1.500	1.800	2.000
NESKA BENJAMINAK	600	600	1.000	1.000	1.200	1.200

2. JARDUNALDI PUNTUAGARRIAK ETA EZ PUNTUAGARRIAK

- Eskola kirolaren arduradunak proben egutegian zein jardunaldi izango diren “puntuagarriak” eta zein “ez puntuagarriak” adieraziko du denboraldi hasieran.
- Jardunaldiaren antolatzaileak eta AAFko eskola kirolaren arduradunak adostuko dute jardunaldi puntuagarri bat egin ala ez, betiere bietarik azkenak izango duelarik azken erabakia.
- AAFren egutegiak taxutu eta gero jakinaraziko da jardunaldien egutegia.

3. KATEGORIAK

3.1. BENJAMINAK

- Benjaminen kategorian libre parte hartu ahal izango da programatutako jardunaldi guztietan.
- Probak ez dira kronometraturako, eta nor iritsi lehenago halaxe egingo da sailkapena.
- Krosa gidatua izango da:
 - Laguntzaile heldu batek ala gehiagok gidatuko dute lasterketa, ibilbidearen erdira arte behintzat, edo azken 200 metrora arte, gehienez. Hortik aurrera lasterketa irekia izango da, eta bakarrik ibiliko dira atletak.
 - Lasterketan neskak eta mutilak batera egon daitezke, edo neskak alde batetik eta mutilak bestetik egin daiteke.

3.2. KIMUAK ETA HAURRAK

- Kimuen eta haurren kategorian libre parte hartu ahal izango da programatutako jardunaldi guztietan.

3.2.-A. SAILKAPENA

Lasterketak kronometratu egingo dira eta bi motatako sailkapenak ezarriko dira:



www.araba.eus

a) Banakakoa: nor lehenago iritsi, horixe hartuko da kontuan.

Gainera, puntuen araberako puntuazio sistema bat ezarriko da, puntu bat emango zaiolarik lehenengo sailkatu denari, bi, bigarrenari, hiru, hirugarrenari... eta horrela egingo da azkeneko sailkatu den pertsonara arte, eta zenbat parte hartzaile egon den, hainbeste puntu emango zaizkio hari. Puntuazio hori taldekako sailkapenean erabiliko da.

*Euskadiko Eskola Jokoetarako Arabako Banakako Selektzioaren zati bat osatzeko erabiliko da puntuazio sistema hori haurren kategorian.

b) Taldekakoa: taldeko lehenengo lau kideek puntuatuko dute.

Taldeko lau kide onenek banakako sailkapen sistema oinarri lorturiko puntuak batu eta horixe izango da talde bakoitzaren emaitza.

Puntu gutxien lortu duen taldea izango da lehen sailkatua; puntu gutxien lortu duen bigarren taldea izango da bigarrena, eta horrela hurrenez hurren.

3.2.-B. HAUR TALDEEN OSAERA

- Taldeetan gutxienez lau eta gehienez sei atleta egongo dira.
- Erakunde bereko kirolariek osatuko dute taldea, halaxe jokatu delarik talde guztiekin; bestela, erakunde desberdinetako kideek, betiere arau hauei jarraituz:
 - Taldean 6 atleta badaude, gutxienez 4, ordezkatzeko duten erakundekoak izango dira.
 - Taldean 4 edo 5 atleta badaude, gutxienez 3, ordezkatzeko duten erakundekoak izango dira.
- Taldeek AAFn eman beharko dute izena, lehenengo jardunaldi puntuagarria hasi baino 10 egun lehenago. Horretarako 1. eranskineko inprimakia erabiliko da. Ez da onartuko izen ematerik, inprimakia horretan jasota ez dagoenik.
- Gehienez ere 2 aldaketa egin ahal izango dira talde bakoitzaren denboraldian. Federazioari eskatuko zaion "Taldearen izen emate orria - Kros jardunaldia" izeneko inprimakian jasoko dira aldaketa horiek.
- Haurren kategorian, denboraldiko proba gisa hartuko da kontuan Euskadiko Eskola Jokoen jardunaldia. Arabako Eskola Jokoen agortu baditu taldeak 2 aldaketak, ezin izango du beste aldaketarik egin Euskadiko Eskola Jokoen kategorian.
- Zenbat talderen izena eman nahi (A, B,...), hainbesteren izena eman ahalko du erakunde berak Arabako Eskola Jokoen, jakinik talde horietarik batek baino ezin izango duela ordezkatu taldea Euskadiko Eskola Jokoen, haurren kategorian.
- Zer erakunde ordezkatzeko duten, harexen elastikoa baino ezin izango dute eraman kirolari guztiek. Elastiko hori ez daraman orok ez du puntuatuko taldeko kide gisa.



3.2.-C. ARABAKO ESKOLA JOKOEN AZKEN FASEA, BANAKAKO ETA TALDEKAKO

- Batera egingo dira kimuen eta haurren kategorietako banakako finala eta taldekakoa Arabako Eskola Jokoetan, betiere Euskadiko Eskola Jokoen, hain zuzen ere, "Landan Zeharkako Haurren Euskadiko Txapelketa"ren garai berdinean.
- Arau hauek bete beharko dira Arabako Eskola Jokoen banakako finalean eta taldekakoa parte hartu ahal izateko:
 - Kros puntuagarri guztietatik erdietan parte hartu izango du atletak edo taldeak, finalean sartzeko.
 - Kros puntuagarri guztien erdiak egin ez dituzten atleta edo taldeek finalean parte hartu ahal izango dute, baina ez dute Arabako txapelketan parte hartuko.
 - *Haurren kategorian, Euskadiko Eskola Jokoen selekzioarako hartuko dira kontuan atleta/talde horiek, baldin eta final hori eginda kros puntuagarrien erdiak osatzen badituzte; bestela, AAFko Eskola Kirolaren Batzordeak erabakiko du Euskadiko Eskola Jokoetan parte hartuko duten ala ez.
- 3.2-A paragrafoa oinarritzat hartuta ezarriko da banakako sailkapena eta taldekakoa. Taldekako sailkapenean berdinketarik egonez gero puntuetan, zein taldek puntu gutxien lortu bere 4. sailkatuarekin (ondoan sailkatu denarekin), talde horrek irabaziko du.

4. EUSKADIKO ESKOLA JOKOETAKO HAURREN SELEKZIOA

Euskadiko Eskola Jokoetan parte hartuko duten Arabako haurrak hautatzerakoan honakoak izango dira kontuan:

- 4.1. Euskadiko Atletismo Federazioak ekitaldirako ezartzen dituen oinarriei egokituko zaie arautegia, Federazioak berak aldatu egin ahal izango dituelarik.
- 4.2. Euskadiko Eskola Jokoetan parte hartzeko aukeratu bada taldea, kide batek berak ere ezingo du parte hartu banakako selekzioan.
- 4.3. Arabako Eskola Jokoetako kros puntuagarrien erdiak egin izan beharko dira hautatzeko moduan egoteko, eta joko horien azken fasea ere puntuagarria izango da. Bestela, AAFko Batzorde Teknikoak ebatziko ditu salbuespenezko kasuak.

4.4 BANAKAKO SELEKZIOA

- Gehienez ere 6 atleta hautatu ahalko dira kategoriako, hau da, nesken eta mutilen kategoriako.
- Hauek hautatuko dira kategoria bakoitzerako:
 - a) Kros puntuagarrietan puntuka sailkatutako lehen 3 atletak (ezin dira izan hautatutako talderen batekoak).
Kros puntuagarrien erdietan atleta bakoitzak lortutako puntuaziorik baxuenak batuko dira, eta punturik gutxien lortu duten hiru atletak zuzenean hautatuko dira. Puntuazio sistema 3.2.A paragrafoak xedatutakoa oinarri ezarriko da. Berdinketarik egonez gero puntuetan, Arabako Eskola Jokoen azken fasean tokirik onena lortu duena sailkatuko da.
 - b) Arabako Eskola Jokoen finalean sailkatu diren lehen hiru atletak (ezin dira izan hautatutako talderen batekoak).



Baldin eta finalean sailkatutako lehen hiru atletetatik bat edo gehiago puntuka sailkatuta badago ordurako, hurrengo sailkatu dena (4.a, 5.a...) hautatuko da.

4.5. TALDEKAKO SELEKZIOA.

- 3.2.-B) paragrafoan arautu bezala osatuko dira taldeak.
- Gehienez ere hiru talde hautatu ahalko dira kategoriako, hau da, nesken eta mutilen kategoriako.
- Gehienez talde batek ordezkia dezake erakundea kategorian bakoitzean, hau da, mutilen eta nesken kategorian bakoitzean.
- Hauek hautatuko dira kategorian bakoitzerako:

a) Kros puntuagarrietan puntuka sailkatutako lehen taldea.

Kros puntuagarrien erdietan talde bakoitzak lortutako puntuaziorik baxuenak batuko dira, eta punturik gutxien lortu duen taldea zuzenean hautatuko da. Puntuazio sistema 3.2-A paragrafoak xedatutakoa oinarri ezarriko da. Berdinketarik egonez gero puntuetan, Arabako Eskola Jokoen finalean tokirik onena lortu duena sailkatuko da.

b) Arabako Eskola Jokoen finalean sailkatu diren lehen bi taldeak.

Baldin eta finalean sailkatutako lehen bi taldeetatik bat edo gehiago puntuka sailkatuta badago ordurako, sailkatutako hirugarren taldea hautatuko da.

4.6. Kroseko Arabako Eskola Jokoen finala egin eta hurrengo egunean argitaratuko da banakako selekzioa eta taldekakoa.

Taldeka parte hartzeko sailkatutako erakundeek ezin izango dute taldean kirolari jakin batzuen izenik eman; hain zuzen ere, kroseko jardunaldi puntuagarriren batean parte hartu ez duen kirolarienik. Aldaketarik ere ezin izango dute egin, denboraldian egin daitezkeen 2 aldaketak agortu badituzte ordurako.

Eskola kirolaren arduradunari jakinarazi beharko zaizkio Arabako Banakako Selektzioan egondako bajak, lehiaketa egunaren aurreko asteazkeneko 20:00ak baino lehen. Baja horiek ez dira onartuko xedea bada talde garrantzitsuren bateko kidea izan dadin atleta.

5. HAUREN EUSKADIKO ESKOLA JOKOAK

Atletismoko Euskal Federazioaren menpe daude zuzenean "Landan Zeharkako Haurren Euskadiko Txapelketa" (Euskadiko Eskola Jokoak) izeneko ekitaldian parte hartzeko araudi eta arautegia. Proba egunean bertan aldaketak egin daitezke ekitaldi horretako izen emateetan, talde bakoitzaren arduradunek egin beharko dituztelarik aldaketok.

Talde bakoitzaren arduradunek proba egunean bertan egin ahal izango dituzte aldaketak idazkaritzan, baldin eta ez badute Arabako Eskola Jokoen jardunaldi puntuagarriren batean parte hartu ez duen kirolariaren baten izena ematen, edo ez badute Arabako Bakarkako Selektzioari eragin diezaioketen aldaketarik egiten AAFko eskola kirolaren arduradunari lehenago abisatu gabe. Halakorik eginez gero, zehapenak jarriko ditu AAFko Batzorde Teknikoak.



6. KROSEN ANTOLATZAILEAK

AAFko eskola kirolaren arduradunari (info@faatletismo.com / f.a.atletismo-dep.esc@hotmail.es) jakinarazi beharko diote jardunaldiaren antolatzaileek ekitaldia egin baino 15 egun lehenago nola programatuko diren probak eta zer hurrenkera izango duten, joan-etorrietarako eskaerak egiteko beharrezkoak diren izapideak azkartzarren.

Probaren luzera kategoria bakoitzerako (1. puntua) araututakoaren arabera izango da; hala izan ezean, Eskola Kirolaren arduradunak egin beharreko aldaketak eta zuzendu beharreko hutsak jakinaraziko dizkio antolatzaileari.

Benjaminen krosa dela eta, antolatzaileak, gutxienez, heldu bat izango du lasterketa zuzentzeko. Halakorik izan ezean, Eskola Kirolaren arduradunari jakinaraziko dio lasterketa egin baino 15 egun lehenago, eta parte hartzen duten klubentzako entrenatzaileek lagundu beharko dute zeregin horretan, hots, lasterketak zuzentzen.

7. ATLETISMOKO ARABAKO FEDERAZIOAREN BATZORDE TEKNIKOA.

AAFko Batzorde Teknikoak ebatziko ditu salbuespenezko kasuak.

8. -DIZIPLINA ARAUDIA

391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa izango da aplikagarria.



TALDEAREN IZEN EMATE ORRIA – KROS JARDUNALDIA

·KAT.= KATEGORIA. Idatzi kategoría bakoitzarentzat ematen diren siglak:

NB = NESKA BENJAMINAK

MB= MUTIL BENJAMINAK

NK = NESKA KIMUAK

MK = MUTIL KIMUAK

NH = NESKA HAURRAK

MH = MUTIL HAURRAK

*Erakunderen batek talde bat baino gehiago aurkezten badu kategoría berdinerako, "A"/"B"/... siglak erantsi beharko dizkio taldearen izenari.

ERAKUNDEA/TALDEA: _____

KATEGORIA: _____

ZENBAKIA	IZENA ETA BI ABIZEN	*ERAKUNDEA: Kirolariak zein erakundetan parte hartzen duen, horretan ez, ezpada beste erakunde batean alta eman bazaio, kasu horretantxe baino ez da bete behar

ALDAKETEN ORRIA

	ZENBAKIA	IZENA ETA BI ABIZEN	*ERAKUNDEA: Kirolariak zein erakundetan parte hartzen duen, horretan ez, ezpada beste erakunde batean alta eman bazaio, kasu horretantxe baino ez da bete behar
NOR SARTU			
NOR ATERA			
NOR SARTU			
NOR ATERA			